

KALITATE POLITIKA

EDE Fundazioaren helburua pertsonak ahalduntzea eta gizarte bidezkoagoa, askeagoa, solidarioagoa eta anakorragoa garatzea da, betiere, pertsonekin eta pertsonentzat lan eginez.

Desabantaila- eta zaugarritasun-egoeretan dauden pertsonak, taldeak eta errealitateak bistaratuz lortu nahi izan genuen helburu hori, betiere, ekintzak, proiektuak, teknologiak, baliabideak, gogoetak, harremanak eta gizartean parte- hartzea, autonomia, ikaskuntza, solidaritatea, duintasuna eta pertsona guztientzako gizarte-antolakuntza sustatuko duten ekimenak sustatuz, garatuz eta bultzatuz.

Gure arloa hezigarria, komunitatekoa, lan arlokoa, kulturala eta ingurumenarekin lotutakoaren dimentsio soziala izanik, eta zeharkako ikuspegitik landuz, trebatu eta informatu egiten dugu; lagundu eta babestu; gizarteratzea sortzen dugu; gizarte-partaidetza sustatzen dugu; ezagutza sortzen dugu; eta proiektuak, baliabideak eta aukerak diseinatzen ditugu.

EdeFundazioak nahiduen da sortzen dituen prestakuntza-eremuek ezaugarri hauek izatea:

- Pertsonak autonomoak dira, beren ikaskuntzen protagonistak.
- Pertsonen lagundu egiten zaie, haien bilaketei eta beharrei erantzunez.
- Pertsona bakoitza hartu, lagundu eta bideratzen dugu, dituen prestakuntza-beharren identifikazioan eta orientazioan lagunduz.
- Arreta pertsonalizatua da.
- Pertsonen arteko elkarlan-dinamikak sustatzen dira.
- Aniztasuna zaintzen da eta osagarritasuna bilatu nahi da.
- Pertsonen egiten jakitea eta esperientzia partekatzea errazten da, ezagutzarako eta dauden prestakuntza-baliabideetarako sarbide askea eta irekia ahalbidetuz.
- Edukietan eta metodologietan goi mailako kalitatea bermatzen da, berria den horretan oinarrituta ikuspegiberriak, tresna berriak edo egiteko modu berriak eskaintzen dituelako.
- Bizipen garrantzitsuak eta ekarpen kontzeptualak sortzen dira, modu egokian eta orekatuan konbinatuz, eta lehengo horretan zentratzen direnei eta bigarren horren bila dabilzaneiei erantzunez.



EDE Fundazioko Profesionalen Taldearen helburua da prestakuntza-ekintzek lortu nahi diren gaitze-emaitzak erdiestea, parte-hartzaileak jasotako prestakuntzarekin gustura egotea eta erakundeak ere pozik egotea eskaintzen diegun zerbitzuarekin.

Aitortzen dugu lorpen horiek ezin direla aurrera eraman praktikak egin ditzaten ikasleak beren gain hartzen dituzten irakasleen eta erakundeen ahaleginik eta laguntzarik gabe; horiekin guztiekin etengabeko harremana eta harreman egokiak mantendu nahi ditugu bi aldeentzat.

Gure proposamenak errealitate bihur daitezten, Kalitatea Kudeatzeko Sistema garatu eta ezarri dugu. Horren bidez, funtzionatzeko moduak bateratu eta hobekuntzak txertatu ahal izan ditugu; hori mantentzeko eta eragingarritasuna hobetzeko konpromisoa hartu dugu, izan ere, horrela, modu iraunkorrean erantzun ahal izango diegu gure bezeroen nahiei eta beharrei.

Pertsonen prestakuntzan eta trebakuntzan lan egiten dugun EDE Fundazioaren Koordinazio kideek erabateko adostasuna adierazten dugu Profesionalen Taldearen planteamenduekin eta gure Kudeaketa Sistema sustatzeko konpromiso pertsonala, inplikaturako eragile eta pertsona guztien lankidetzarekin.

Bilbon, 2024ko apirilaren 2an

Pedro Beitia
Sin. EDE Ezagutzaren koordinatzailea

Begoña Gavilan
EDE Enplegu Inklusiboaren koordinatzailea

